

www.elcorreo.com /zurekin/elhuyar-zientziaren-euskararen-20221114113614-nt.html

## Elhuyar 50, zientziaren eta euskararen aldeko egundoko festa

UNAI SARRIUGARTE : : 11/11/2022



Entretanimendua Antton Telleria bakarrizketalariaren, Janus Lester musika taldearen eta Kimuak dantza taldearen gidaritzapean egon zen. / ELHUYAR

### Donostiako Kursaaalen ostegun honetan zientziak, euskalgintzak eta euskal gizarteak bat egin zuten, Elhuyarren mende Erdiko ibilbideko ospakizun jaiaren baitan

UNAI SARRIUGARTE Ostirala, 11 azaroa 2022, 11:56

Zientzia eta euskara abiapuntutzat jota egundoko festarekin ospatu zuten Elhuyarren 50 urteurrena ostegun honetan, azaroak 10, Donostiako Kursaaalean. Urte osoan barrena mende erdi hauxe aitnzatesteko hainbat ekitaldi eraman dituzte aurrera, baina ostegunekoa ekitaldi nagusia izan zen. Enpresa, gizarte-eragile eta administrazioei irtenbide berritzaileak sortzen laguntzen aritu da azken mende erdian Elhuyar eta guzti hura ospatu nahi izan zuten Gipuzkoako hiburuan, mundu globaleko egungo erronkei erantzunez eta diziplina anitzeko ikuspegiarekin jarraitzeko ahaleginean.

Izan ere, euskararen eta euskal gizartearen garapenean erreferente izateko, lankidetzan dihardute zientziaren, adimen artifizialaren, hiztegi gintzaren, itzulpen gintzaren hizkuntza-kudeaketaren eta hobekuntza sozialaren eremuko profesionalekin.

Oholtza gainean zientziaren, euskalgintzaren eta gizartearen alorreko hainbat pertsonai publiko batu ziren, hala nola, Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbao, Laboral Kutxako Gizarte Kudeaketako zuzendari Nuria Agirre, Usurbilgo alkate Agurtzane Solabarrieta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari Garbiñe Mendizabal, Eusko Jaurlaritzako Ikerketa zuzendari Amaia Esquisabel edota EHUko HITZ Ikerketa Zentroko zuzendari den Eneko Agirre. Entretenimendua, berriz, Antton Telleria bakarrizketalariaren, Janus Lester musika taldearen eta Kimuak dantza taldearen gidaritzapean egon zen.

'Elhuyar, 50 urte aurrerago' lelopean, kutxa urdin batzuek girotzen zuten Kurasaaleko aretoko oholtza, argi urdinekin argituta zegoelarik taula, Elhuyarren kolorei erreferentzia eginez. Argizatutako kaxetan aurten urteurrenaren baitan burutu dituzten ekitaldi guztien oroigarriak bildu zituzten, egungo Euskal Herria islatzen duten zenbait objektu eta dokumentu jaso zituzten. Hortaz, kutxa hauxe 50 urte gordeko dute eta 2072. urtean irekitzea da asmoa, orduko gizarteak kutxa hauxe ireki eta egun jazotakoaren berri izan dezan.

Kultur proposamenak eta hitzaldiak tartekatu ziren ekitaldian barrena. Txema Pitarke Elhuyar Fundazioko lehendakariak Euskal Herrian dugun zientzia sistema sendoa goraipatu zuen, eta orain zientziaren esparruan gizarteari ekarpen bat nola egin ahal diogun hausnartzeko garaia dela aitortu zuen. Bere esanetan: Elhuyarrek maisuki asmatu du bide hori irekitzen eta dibertsifikatzen«.

Jon Abril Elhuyarko koordinatzaile nagusiak, aldiz, azken 50 urteotan Elhuyarrek Euskal Herrian egindako lan eskerga nabarmendu zuen. Zientziaren arloan euskara bultzatu zuten belaunaldientzat ere keinu bat izan zuen. «Hazi berriak kimu bihur daitezen, kimuak zuhaitz, eta zuhaitzek fruitu berriak eman ditzaten», amaitu zuen.

## Temas

[Euskera, Ciencia](#)